

Deustuko Unibertsitatearen eta Bilboko Elizbarrutiaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Andrés Mañariçuaren heriotzaren mendeurrena antolatatzeko

Deustuko Unibertsitateak eta Bilboko Elizbarrutiak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute, uztailak 12, Andrés E. Mañariçuaren jaiotzaren mendeurrenaren ekitaldiak batera antolatatzeko, apaiz, irakasle, ikertzaile eta liburuzain horren lanari eta Euskal Herriko erlijioaren historian, kulturen eta euskal ikaskuntzetan egindako ekarpenei bere balioa aitortzeko. Akordio horren asmoa da, halaber, argitaratu gabe utzi zituen lanak berreskuratzea eta plazaratzea. Halaxe adostu dute eta sinatu Jaime Oraá errektoreak eta Mario Iceta Bilboko gotzainak.

Andrés de Mañariçuaren bizitza eta lana ezagutarazten eta zabaltzen laguntzea da mendeurrenaren helburu nagusia. Ekitaldien barruan, biltzar bat antolatzeko asmoa dago, irakasle horrek XX. mendeko ikasketetan eta euskal kulturen egindako ekarpenetatik abiatuta, zein norabide jarraitu beharko luketen XXI. mendean ikusteko. Ponentziak eta komunikazioak bost gai-arloren inguruan antolatu beharko dira: euskal historia, euskal zuzenbidea, euskal historiografia, euskal kultura XX. mendeko 60 eta 70eko hamarkadetan, eta euskal ikaskuntzak munduari begira eta XXI. mendeari begira.

Hitzarmenak jasotzen du web orri bat sortzea ere, mendeurrenaren ospakizunak mundu mailako zabalkunderako tresna



Mario Iceta eta Jaime Oraá

bat izan dezan. On Andrésen pertsonaren eta lanaren erreferentzia izango den «toki birtual» bat izango da, «atari biobibliografiko» eta guzti, etorkizunean bere lanak kontsultatu ahal izateko moduan. Hitzarmen horretatik sortu daitekeen beste ekimen bat da erakusketa bat antolatzea, lehenengo «*Bizkaiko seme bikaina*» izan zenaren bizitza eta lana ikusteko modu erakargarrian prestatzea. Andrés E. de Mañariçu y Nuere, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko eta Filosofia eta Letren Fakultateko irakaslea ez ezik, unibertsitate horretako Euskal Gaien Institutuko kidea ere izan zen eta zenbait kargu bete zituen bertan: Bizkaiko Historiako Katedrako irakasle numerarioa, Patronatuko kidea, Saileko zuzendaria (1975-1979) eta Euskal Gaien Liburutegiko zuzendaria.

Andrés E. de Mañariçu y Nuere, abadea eta Bilboko Elizbarrutiaren historia erlijiosoaren ikertzailea izanik, hainbat zeregin bete zituen elizbarruti horretan eta haren jatorrizkoan, Gasteizeko Elizbarrutian: Elosuko parrokiaren arduraduna eta lagunkidea Legutian, Araban (1939-1940), Giza Zientzietako irakaslea Bergarako Seminario Txikian eta Guardiako eskolan (1940-1944), Derioko Elizbarrutiko Seminarioko liburuzaina (1956-1970), Bizkaiko Elizaren Historiako Artxiboko Kontseilu Aholkulariko kidea, Labayru Institutuaren sortzailea eta ohorezko kidea, sinodoko epailea eta Eliz Auzitegiko kidea.

Mendeurrena ospatzeko ekintza guztiak Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuaren eta Labayru Ikastegiaren bitartez egingo dira.